

Proiektu arkitektonikoetan kalitate-sistemak aplikatzea (1998-2000)



EHAEO, funtsean, lanbideari zerbitzua egiten dion izakia da. Elkargokoen hedapenerako, informaziorako eta ondorengo prestakuntzarako lan egiten du etengabe, lanbide ariketarako laguntza ematen du baina, aldi berean, gizarteari zerbitzu handia egiten dio. Lanbide etikaren, hirigintza-razionaltasunaren eta -diziplinaren, publikoa eta pribatua elkarretatik bereiztearen (bateraezintasunen kontrolaren alde) eta abarren alde egitea du ezaugarri.

Motibazioa

Proiektua egitea sustatu duten arrazoiak kalitate-politika ausartaren barruan sartuta daude. Kalitate-politika horri Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak ekin dio proiektu arkitektonikoen kalitatea hobetzeko.

Proiektu horien kalitate-berme egokia eskaini gura zaie eraikitze prozesuan esku hartzen duten profesional ugariei (sustatzaileei, eraikitzaileei, herri erakundeei eta abarri) eta, hortaz, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko gizarte osoari.

Halaber, ikus-onespenean esku hartzen duen profesional taldeari eskaini gura izan zaio irizpideak bateratu eta komunikazio eta erlazio handiagoa ezartzen duen lantresna, zertarko-eta, azken finean, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta seriotasun-irudia eta lan ondo egina proiektatzeko.

Garapena

Proiektuaren hasierako helburuetako bat Arkitektoen Elkargoren metodologia zehatza azaltzea izan da, zertarko-eta arkitektoek idazten dituzten proiektuen kalitatea kontrolatu ahal izateko eta Elkargoak egindako kontrola berrikusteko eta kalitatearen ikus-onespena emateko. Prozesuak benetako prestigioa izan dezan eta, aldi berean, sistema behar bezala eta era homogeneoan ibil dadin beharrezkotzat jo da erakunde lokabearen aldetiko aintzatespena lortzea, hau da, Kalitate-ziurtagin bat. Bide horri jarraiki, 1999ko ekainaren 16an EHAEOren Gipuzkoako Ordezkaritzari eman zitzaion Espainiako Normalizazio eta Ziurtagin Elkartearen aurrean (AENORren aurrean) ISO 9002 arauaren aurreko ER-0549/2/99 Enpresa Erregistroaren Ziurtagiria, ikus-onesteko prozesu osorako, hau da, espedientea jasotzen denetik, berau berriro ikusi, tramitatu, fakturatu, kobratu, eman eta artxibatatu arteko prozesurako.

Lehenengo etapa hori bukatuta, Kalitatea Kontrolatzeko Euskal Herriko Erakundea eratu da, egoitza Donostian duena. Beraren helburua Nazioko Egiaztapen Erakundearengandik (ENAC-engandik) EN 45004 arauarekin bat datorren egiaztagiria lortzea. Beronen bitartez erakunde horrek ziurtagiriak eman ahalko ditu, proiektuaren kalitatea bermatzen dutenak (kalitatearen ikus-onespena). Izan ere, hori zen enpresak nahi zuena.

Emaitzak

Emaitza onak lortzeko funtsezko lana izan da Arkitektoen Elkargoak kalitate arkitektonikoaren kultura ahalbidetzeko eta espedienteak aurkezteko irizpideak bateratzeko dokumentazio teknikoaren egitea. Dokumentazio horren barruan sartuta honakook daude, besteak beste: hura kontrolatzeko eta Espedienteak Aurkezteko Arauak, Proiektu Arkitektonikoa Egiteko Jarraibideak, Proiektu Arkitektonikoaren Kalitatea Kontrolatzeko Prozedurei buruzko Eskuliburua eta Prozedurak Egiaztatze Jarraibideak.

Arrakastaren gakoak honakook izan dira: ikus-onespeneko egiturako langile guztien partaidetza eta lankidetzeta eta elkargokoen lankidetzeta. Izan ere, proiektu arkitektonikoa kontrolatzea oso zaila da eta berebiziko garrantzia du arkitektoaren lanbide lana garatzeko. Gainera, honako oinarritzko hausnarketa hau hartu behar izaten dugu beti: kalitatea etengabe hobetzea bukaerarik ez duen prozesua delako hausnarketa.

Aplicación de sistemas de calidad en los proyectos arquitectónicos (1998-2000)

El COAVN es fundamentalmente un ente de servicio a la profesión, manteniendo en su seno una constante tarea de difusión, información y formación posterior del colegiado en apoyo del ejercicio profesional, pero, a la vez, presta un gran servicio a la sociedad, distinguiéndose en la defensa de la ética profesional, de la racionalidad y disciplina urbanísticas, de la separación entre lo público y lo privado (control de las incompatibilidades), etc.

Motivación


Las razones que han promovido la realización del proyecto se encuentran englobadas dentro de una decidida política de calidad, emprendida por el Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro, para la mejora de la calidad de los proyectos arquitectónicos.

Se trata de ofrecer al amplio abanico de profesionales (promotores, constructores, organismos públicos...) que intervienen en el proceso constructivo y, por tanto, al conjunto mismo de la sociedad de la Comunidad Autónoma del País Vasco la pertinente garantía de calidad de dichos proyectos.

Asimismo, se ha querido ofrecer al equipo de profesionales que intervienen en el visado una herramienta de trabajo que unifique criterios y establezca una mayor comunicación e interrelación mejorando, en definitiva, la calidad del servicio, proyectando una imagen de seriedad y trabajo bien hecho

Desarrollo

Uno de los objetivos iniciales del proyecto, ha sido plantear desde el Colegio de Arquitectos una metodología concreta, de manera que los arquitectos pudieran hacer un control de calidad sobre los proyectos que redactasen y a su vez el Colegio revisar la bondad del control realizado, emitiendo un visado de calidad. Para que este proceso tenga auténtico prestigio y a la vez el sistema funcione correctamente y de forma homogénea se ha considerado necesario obtener un reconocimiento por parte de un organismo independiente, esto es, una Certificación de Calidad. Siguiendo esta vía, con fecha 16 de junio de 1999, se otorgó a la Delegación en Guipúzcoa del COAVN el Certificado de Registro de Empresa ER-0549/2/99 frente a la norma ISO 9002 ante la Asociación Española de Normalización y Certificación (AENOR) para todo el proceso de visado, es decir, desde la recepción del expediente hasta la revisión, tramitación, facturación, cobro, entrega y archivo del mismo.



Una vez cerrada esta primera etapa, se ha constituido la Entidad de Control de Calidad del Colegio Vasco-Navarro, con sede en San Sebastián. El objetivo de dicha Entidad es acreditarse ante la Entidad Nacional de Acreditación (ENAC) de acuerdo a la norma EN 45004, con lo cual el propio Colegio podrá emitir certificados que garanticen la calidad del proyecto (visado de calidad) que era el resultado pretendido de la empresa.

Resultados

Una labor fundamental para obtener resultados positivos ha sido la elaboración desde el Colegio de Arquitectos de una documentación técnica con el espíritu de favorecer una cultura de la calidad arquitectónica y unificar criterios en la presentación de expedientes. Dicha documentación ha sido, entre otras, la siguiente: Normas de Presentación de Expedientes a efectos de su Control, Instrucciones para la Elaboración del Proyecto Arquitectónico, Manual de Procedimientos de Control de Calidad del Proyecto Arquitectónico, Instrucciones de Verificación de Procedimientos.

Las claves del éxito han sido la participación y colaboración de todo el personal de la estructura de visado y la cooperación de los propios colegiados, ya que el control del proyecto arquitectónico es una labor de gran complejidad que presenta una singular importancia en el desarrollo del trabajo profesional del arquitecto, teniendo, siempre en cuenta, una reflexión básica: la mejora continua de la calidad es un proceso que no tiene fin.

Arkitektura-azterketetan proiektu arkitektonikoen kalitate-sistemak ezartzea (1999-2001)



Motibazioa

Proiektu hau egiteko zio nagusia Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak Proiektu Arkitektonikoak baliozkotzeko ezarritako kalitate-sistema ahalik eta Arkitektura Azterketa gehienetara arrazoizko eran eramane beharra izan da. Behar hori proposaturiko metodologiari jarraituz espediente osoa eta kalitatezkoa idazteak ekartzen duen zailtasunaren ondorioz sortu da. Metodologiak, funtsean, proiektu arkitektoniko horren produkzio-prozesuaren estandarizazioa eskatzen du.

EHAEOk Kalitate-irizpideak ahalik eta elkargokide gehienei helarazteko arauari eutsi dio. Hori dela eta, programa informatiko elkarreragile baten bitartez Elkargoa Azterketekin lotzen duen "trakzio"-erakunde bezala jarduteko ahalbidea aukeratu du.

Garapena

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak bazekien eraikitze-prozesuaren onginahia bermatzen duen kalitatezko Proiektu

Arkitektoniko osoa egitea oso zaila zela sistematika, eskuliburuak eta prozedurak nazioarteko arauekin bat etorriki garatzea erabaki zuen, zertarako-eta Proiektu Arkitektonikoaren Kalitatearen Kontrola finkatzeko eta horrelako Ziurtagiriak lortu ahal izateko. Horretarako, Ikus-onespen Sailen kanpoko Egiatapena baliatu behar zen, haiek berriro ikusitako proiektuen Kalitate-ziurtagiriak emateko ahalmena duten Ikuskapen Erakundeak ziren aldetik.

Aipatutako dokumentazioa (eskuliburuak eta abar) egin da eta Ordezkaritzetan sorturiko Teknologia Aholkularitzako Zentrotrei lagundu zaie. Hori dela eta, Ordezkaritzen eta Euskal Herriko Elkargoaren beraren ibilera nabarmen hobetu da. Izan ere, Arkitekto Elkargoen Kontseilu Nagusiak, Arkitekturaren Estatuko organo gorena baita, uste du ezen EHAEO egun aitzindaria dela dokumentazio-kudeaketari eta eragin-kortasunari begira.

Lan hori eginda eta egitura txikitu baina gehienbat erabat informatizatueta oinarrituriko Euskal Herriko Arkitektura Azterketa askoren osaera dela eta, Arkitektura Elkargoaren eta azterketon artekoa eta Proiektuaren Kalitatea Kontrolatzeko den konexio elkarreragileak azterketa horiei, langileria urridunei ere, Kalitate-ziurtagiriak lortzeko aukera ahalbidetuko lieke.

Emaitzak

Lehenengo fase bezala egin den Proiektu Arkitektonikoaren Kalitate Teknikoa Kontrolatzeko Prozedurei buruzko Eskuliburuaren CD-ROM-aren bitartez bete daitezke dagoeneko Kalitate-sisteman proposatutako egiaztapenerako itaun-sortak. Hori dela bide, arkitektoentzako abantaila nabarmenak lortu dira, haiek jakinarazi diguten bezala.

WEB dinamikoaren bitartez urrutitik atzitzeko informazio-sistema egiteak elkargoko kideei espedienteen zentzu bietako jakinarazpena ahalbidetuko die. Horrek Azterketei nabarmen erraztuko die Proiektu Arkitektonikoa kontrolatzeko prozesu osoa.

Implantación de sistemas de calidad de los proyectos arquitectónicos en los estudios de arquitectura (1999-2001)

Motivación

El motivo principal para la realización de este proyecto ha sido la necesidad de que el sistema de calidad implantado por el Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro para la validación de Proyectos Arquitectónicos llegue de manera asequible al mayor número posible de Estudios de Arquitectura. Dicha necesidad ha surgido como consecuencia de la dificultad que supone redactar un expediente completo y de calidad siguiendo la metodología propuesta, la cual exige, básicamente, la estandarización del proceso de producción de dicho Proyecto Arquitectónico.

El COAVN mantiene la norma de hacer llegar los Criterios de Calidad al mayor número de colegiados posible, por lo que se ha optado por la posibilidad de actuar como organización "tractora" conectando el Colegio con los Estudios a través de un programa informático interactivo

Desarrollo

El Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro, siendo consciente de la complejidad que entraña la elaboración de un Proyecto Arquitectónico completo de calidad y que garantice la bondad del proceso constructivo, optó por desarrollar la sistemática, manuales y procedimientos, de acuerdo con normas internacionales, para afianzar el Control de Calidad del Proyecto Arquitectónico y poder obtener Certificados de los mismos, mediante la Acreditación externa de los Departamentos de Visado, como Entidades de Inspección con capacidad para emitir Certificados de Calidad de cada proyecto revisado.

La elaboración de la citada documentación (manuales, etc.) y el apoyo de los Centros de Asesoramiento Tecnológico creados en las Delegaciones, ha supuesto una notable mejora en el funcionamiento de las mismas y del propio Colegio Vasco-Navarro respecto del cual el Consejo Superior de los Colegios de Arquitectos, órgano máximo de la Arquitectura en el Estado, considera que el COAVN es actualmente, pionero en cuanto a gestión documental y eficacia se refiere.



Una vez realizada esta labor y dada la conformación de un gran número de Estudios de Arquitectura del País Vasco, basado en estructuras reducidas pero en su inmensa mayoría totalmente informatizadas, la conexión interactiva para la realización del Control de Calidad del Proyecto entre el Colegio de Arquitectos y dichos Estudios, permitiría a los mismos, incluso a los de escaso personal, la posibilidad de obtener Certificados de Calidad.

Resultados

A través del CD-ROM del Manual de Procedimientos de Control de Calidad Técnica del Proyecto Arquitectónico que se ha elaborado como una primera fase, es ya posible rellenar los cuestionarios de comprobación propuestos en el sistema de Calidad, con lo cual se han obtenido considerables ventajas para los arquitectos, tal como se nos ha comunicado por parte de los mismos.

La realización del sistema de información para el acceso remoto mediante una WEB dinámica, permitirá a los colegiados una comunicación en ambos sentidos de los expedientes, lo que facilitará notablemente a los Estudios todo el proceso de control del Proyecto Arquitectónico.